

Palestinaren Historiara Hurbilketa: Palestinar Britainiar Agintaldia Abiapuntu moduan Demografiaren Ikuspuntutik.

Endika Rodriguez

1. Sarrera

Britainiar Agintaldia bukatzearekin batera aldaketa sakonak gertatu ziren Palestina Historikoa bezala ezaguna den lurraldean. Hamarkada gutxiren buruan Palestinako balantze demografikoa guztiz aldatu zen, arabiar jatorriko biztanleria gehiengo nabarmen bat izatetik herrialdeko zonalde batzuetan desagertzera pasa arte. Aldaketa demografiko sakon horien zergatiak proiektu kolonialaren eskutik indigenen ezabatze-logikaren beharrean aurkitzen ditugu. Proiektu sionistak berarentzat aldarrikatzen zuen lur eremuan ezin zen gutxiengo demografiko bat izan. Beraz, Britainiar Agintaldian zehar, eta hori behin bukatutzat emanda, eraldaketak burutzeko aukerak izan zituen.

Eraldaketa horien zergatiak, eta prozesu horren bilakaerak, zerikusia du gaur egun Israeleko estatuak hartzen dituen erabaki politikoeekin. Prozesu horren ibilbideak Aro Garaikidean Palestinako lurretan ezartzen hasi ziren asentamendu sionista eta proto-sionistekin du hasiera, eta gaur egun arte ikusi daiteke erabaki politiko eta demografiko horien eragina.

Artikulu honen helburua aldaketa demografiko horien zergatiak aztertzea da. Britainiar Agintaldian zehar aldaketa demografiko nabarmenak egiteko aukera gutxi eduki zituen proiektu sionistak, britaniar agintariak transferentzia populazioak egiteko aukerak bertan behera utzi zituztelako, greziar eta otomandarrekin gertatu ez zen bezala (Masalha, 1992:36). Horren ondorioz, elkarte sionisten aukera bakarra aldaketa demografikoak burutzeko lurren erosketa txikiak burutzea izan zen, eta behin lur horien jabegoa eskuratuta bertan zeuden nekazariak etorkin judutarrengatik aldatzea. Prozedura horren emaitzak ez ziren oso adierazgarriak izan, Britainiar Agintaldia bukatzerakoan lurren %6an inguruko jabetza zuten eta biztanleria osoan herena inguru judutarra zen (Hadawi, 1957:15)(Pappe, 2011:16).

Lurren jabego eta populazio datu horiekin etorkizuneko Israeleko estatuak zailtasun dezente edukiko zituen. Nazio Batuen erakundeak, Palestinako Banaketa Planaren bitartez ezaguna den banaketa burutu zuen Palestina historikoan (UN, 1947), baina etorkizuneko Israeleko estatuari esleitutako lur kopuruan judutarrak gutxiengo demografikoa izango ziren (Pappe, 2004:96). Britaniarrak agintean egon ziren bitartean aldaketa demografiko sakonak burutzeko gaitasuna ez zuten eduki elkarte sionistek, beraz indarren korrelazioen aldaketa baten esperoan egon beharko ziren aldaketa sakon horiek egiteko aukerak zabaltzeko.

Esan bezala, Banaketa Planak eta britaniarren alde egiteak etorkizunari begira beste aukera batzuk ireki zizkion proiektu sionistari. 1947-49 urteen bitartean, Banaketa Plana onartu zenetik gerraren armistizioa sinatu zen arte, 750.000 biztanle arabiar inguruk derrigorrezko lekualdatzeak eta kaleratzeak pairatu zituen (2006:6), bizi ziren 400 herrixka eta hiri auzo hustuak eta suntsituak izanik (Idem, xiii). Aldaketa sakonak burutzeko aukera gerrak sortu zuen, etorkizuneko Israeleko estatuaren lurak zabalduz,

partizioan eskaintzen zirenak baino gehiago lortuz, eta lur horien barruan bizi ziren biztanle ez judutarren kopurua gutxituz.

Aldaketa demografiko horiek guztiak, eta proiektu sionistaren kolonizazio prozesua, konparaketa ikuspegi batean koka daitezke kolonizazio prozesuaren dinamikak hobeto ulertzeko. Hurrengo atalean landuko den euskarri teorikoaren bitartez, ez bakarrik Palestinako kolonizazio sionista, baizik eta mundu mailan gertatu diren kolonizazio prozesu ezberdinak iragazki berdina erabiliz aztertuko dira. Horren bitartez, historiografia sionistak aldarrikatzen duen bakartasuna edo berezitasuna ezbaian jartzeaz gain, etorkizunari begira konparaketa aukerak zabaltzen dira.

Settler colonialism teoriaren bitartez Britaniar Agintaldian zehar proiektu sionistaren behar demografikoak aztertzea du xede artikuluko honek. Horretarako Britaniar Agintaldian erabili ziren errolden inguruan azterketa sakon bat egin beharko da, erroldak zuzendu eta aztertu politika sionistek eraginik izan zuten ala ez, bertan bizi zen biztanleriarengan kanporatze orokorrak burutu baino lehenago. Artikuluan zehar zehaztu den moduan, elkarte sionisten aukera bakarra Britaniar Agintaldian lurra erostea eta bertan zegoen biztanleria ordezkatzeko izan zen. Prozedura horrek ahalbidetu zuen etorkizunean burutu ziren aldaketa demografiko sakonen gertaerak. Arazoen erroetara jotzea du helburu artikuluko honek, gatazka honen zergatieri argitasun apur bat eskaintzeko asmoz.

2. Euskarri teorikoa

Sarreran azaldu den moduan, Palestinako gatazkara hurbilketa bat proposatzen da, eta horretarako euskarri teorikoari begirada bat jo behar diogu. Zergatik eta zer modutan konpara daitezke sionisten Palestinako kolonizazioa eta, adibidez, Australia edo Hego Afrikako kolonizazio prozesuak?

Galdera horiei erantzun koherente bat emateko *settler colonialism*-en analisi teorikoa erabiltzen dugu, arestian esan bezala, kolonialismo klasikoaren azalpenetatik duela hamarkada batzuk arte ez da gorpuztu teoria hau. Kolonialismo klasikoak erabiltzen zituen erremintak ez ziren nahikoa deskolonizazio prozesu batzuetan murgilduta zeuden herrialdeen dinamikak azaltzeko, adibide horiek aztertuz garatu da *settler colonialism* teoria. Zer gertatzen zen deskolonizazio baten ostean independentzia lortzen zuten herrialdeetan non, bertan bizi zen biztanleriaren zati bat ez bazen indigena? Hots, biztanleriaren zati batek (kasu ezberdinek oreka demografiko ezberdinak planteatzen dituzte) “atzerritarra” edo kolonizatzailea jarraitzen izaten bazuen?

Kolonizazio “klasiko” eta *settler colonial* kasuak garaikideak izan daitezke, bata bestearekin hasiera batean nahastu daitezke edota *settler colonial* kasu bat kolonialismo klasiko saiakera batetik sortu. Adibide ezberdinak edukiko genituzke jatorri kolonial ezberdinak aztertuz gero, ez da emaitza berdina lortzen kolonizazio prozesua Britaniar Handiak burutzen badu edo Gaztelako Erresumak. Are gehiago, kolonizatzailea den herrialde berdinak emaitza ezberdinak lortu ditzake kolonizatutako lurraldearen arabera.

Settler Colonial kasuetan, ezberdintasun eta ñabardurak kontutan edukita, hasierako puntu amankomun bat erakusten dute guztiek: kasu guztietan, lehen urrats moduan, luraren sarbidea bermatu behar du proiektu kolonizatzaile orok (Wolfe, 2006:388).

Gerora indigenen eta kolonoen arteko arraziazio prozesua edota beraien arteko oreka demografikoa bigarren maila batean geratzen da. Lur sarbiderik ez bada bermatzen bigarren pausorik ez doa aurrera. Lur sarbidea izango litzateke indigenen eliminazioa burutzeko lehenengo arrazoia (Idem).

Baina lurraren sarrera fisikoa burutu baino lehenago, proiektu kolonialak kolonizatu nahi duen lurraren gaineko aldarrikapen bat sortu beharko du. Kolonizatu nahi den lur horren gainean nagusigoa eta jabego morala edukitzeko oinarria. Aldarrikapenak oso ezberdinak izan daitezke, baina guztien zeregina berdina da, kolonoa indigenizatzea indigena desindigenizatzen den bitartean. Historian zehar aldarrikapen ezberdinak ikusi ditugu, eskubide erlijiosoetatik lurren aprobetxamendu egokiago batera edota darwinismo sozial baten bitartez gauzatutako aldarrikapenak (Idem). Aldarrikapen horien guztien zeregina da desiratzen den lurraren gaineko aldarrikapen moral bat ezartzea, lurren gaineko indigenen eskubideak deuseztatuz.

Lurraren aldarrikapenean aurrera eginda, proiektu kolonizatzaileak lurraren gainean presentzia fisikoa bermatu behar du. Kasu honetan, modu ezberdinak daude presentzia hori bermatzeko. Aztertutako kasu batzuetan sarrera hori modu biolentean burutu da, indigenei lurak lapurtuz eta indigenak aurretik erabiltzen zituzten lur horietatik kanporatuz. Beste kasu batzuetan, aldiz, lurren sarrera horiek akordio edo lurren salerosketen bitartez burutu dira hasiera batean (2012:135). Ameriketako konkistaren hastapenetan, Karibean, populazio indigenen guztizko desagertzea gertatu zen, konkistaren bortizkeria eta gaixotasunen ondorioz (Livi-Bacci, 2006:200). Kasu horretan, nahiz eta indar kolonizatzailearen nahia ez izan, indigenen guztizko desagertzea suertatzen da.

Badago beste aukera bat, *terra nullius* izenaz ezaguna, kasu hauetan lurra bizilagun barik aurkitzen da, beraz, lurak ez du jaberik (Sen, 2017:398). Definizio horrek arazo ugari sortu ditu eta proiektu kolonizatzaileek lurak eskuratzeko prozedura moduan azaldu dira. Indigenek lurren ustiaketak modu ezberdinetan burutzeak ez du esan nahi lur horiek okupatu gabe zeudenik. *Terra nullius* moduan lur batzuk ezartzea, indigenen lurren jabegoa ezabatzea suposatzen zuen, kolonizaziorako lurak zabalduz.

Lurretan sarrera fisikoa lortzeak ez du adierazi nahi proiektu kolonizatzaile horrek iraunkortasuna bermatuta edukiko lukeenik etorkizun batean. Behin lurren sarrera fisikoa edukita bigarren fase batean sartuko zen proiektua, non aldarrikapenean dagoen lur eremua eta balantza demografikoak jokoan hasten diren. Arestian adierazi bezala, kasu batzuetan indigenen guztizko desagertzea gertatu zen, baina kasu gehienetan bien arteko “elkarbizitza” egon zen denbora tarte batean aldarrikapenean zegoen lurrean. Kolonizazioaren fase horretan, proiektu kolonizatzaileak, oro har, bi aukera baliatu zituen balantza demografikoak aldatzeko. Lehenik eta behin, aldarrikapenean dagoen lurren mugak ez badira bere osotasunean bete, proiektu kolonizatzaileak indigenak mugetatik haratago kanporatzen ditu. Horren bitartez ez du indigenen eliminazio fisikoa burutu behar, baizik eta gertakari hori atzeratu mugak bere osotasunean kontrolpean eduki arte. Beste aukera indigenen eliminazio fisikoa izango litzateke. Azaldutako bi kasuetan, proiektu kolonizatzailean behar ekonomikoak aztertu beharko lirateke eta proiektuak berak indigenengan ezartzen duen politika arraziala.

Proiektu kolonizatzaileak gutxieneko jende kopuru bat beharko luke ordezkapen demografiko minimo bat aurrera eramateko, eta proiektu kolonizatzaileak kale ez egiteko. Horrelako baliabideak zerikusia du metropolitik irteten den jende kopuruarekin, kolonizazioa burutu den garaian, metropoliak zer nolako gaitasuna izan duen populazio soberakin hori sortzeko eta mugetatik haratago bidaltzeko. Bi populazio mota ezberdinu beharko genituzke kolonizazio prozesu horretan.

Lehenik eta behin, metropoliaren eskutik koloniarara doazen biztanleak. Horien kasuan ez du zertan kolonizazio prozesu horrek *settler colonial* kasu batean bilakatu. Horren adibide dira Britaniar Handiaren eskutik Indiara edo Egiptora joandako britaniar biztanleak dira. Behin kolonizazio prozesua bukatuta, bueltan metropolira joateko aukera izan zuten biztanleak izan ziren. Adibide hori kolonizazio klasikoaren azterketa bat izango litzateke.

Badira biztanleriaren mugikortasunean ezaugarri horiek betetzen ez dituzten beste migrazio batzuk. Sorteritik ihes egindako biztanleak, guda erlijioso, hondamendi natural edota jazarpen politikoak direla eta munduko beste txokoetara ihes edo erbesteratutako izandako gizabanakoak. Migratzaile horien egoera hori guztiz ezberdina da. Kasu horietan ez dago metropolira itzultzeko aukerarik, atzerrira doazen biztanle horiekin subiranotasunak bidaiatzen du (Veracini, 2010:57). Heltzen diren lekura ezartzeko heltzen dira, betiko, indigenak ordezkatzeko. Australiara heldu ziren irlandarrak adibide, horietako asko preso heldu zirenak.

Bada beste aldaera bat, zeina belaunaldietan garatutako subiranotasunak metropolian kontrako altxamendua sortzen duen. Horren adibiderik argienak Ameriketako kolonia espainiar eta britaniarrak izango lirateke. Belaunaldiak aurrera joan ahala, indar kolonialerako lan egindako eta bere eskutik ezarri zen biztanleriaren oinordekoak metropoliaren kontra altxatzea. Hortik sortzen den estatu berria ez da indigenek sortutakoa, baizik eta kolonizazio prozesuan parte hartu zuten gizabanakoen oinordekoena.

Aldaera demografiko horiek guztiak indigenen eta kolonoen arteko demografia balantzea aztertzeraz garrantzizkoak dira. Kolonoek biztanle kopuru minimo bat eduki beharko lukete proiektu kolonizatzaileak kale ez egiteko, behin lurraren sarrera bermatuta edukita. Epe luzera ez da jasangarria gutxiengo demografikoa duen proiektu kolonizatzaile bat, hainbat adibide gertatu dira historian zehar, eta gure artikulua kasuan ikusiko dugun moduan, berebiziko garrantzizko gai bat da.

Kolonizazio prozesuek jarrera ezberdinak eduki izan dituzte lur aldarrikapen pean bizi ziren indigenekiko, kasuak egon dira, non beharrezko lan esku moduan erabiliak izan diren kolonizazio proiektuaren ordezkapen demografikoaren gaitasuna ez zelako eraginkorra. Beste kasu batzuetan, aldiz, guztizko ordezkapena burutzen saiatu da indigenak lurretatik kanporatuz edota eliminazio fisikoa erabiliz.

Erabaki horien guztien atzean kolono eta indigenen arteko oreka demografikoaren beharra dago, baina beti etorkizuneko bizirautea bermatzeko beharrekina. Aurretik esan bezala, proiektu kolonizatzaile baten balantza demografikoa oso garrantzitsua da ulertzeko indigenenganako politikak ulertzeko. Proiektu bat gutxiengo demografikoa bada, Hegoafrika zena kasu, ezin du boterea modu demokratiko bidez banatu, botere

politikoa galtzera ekarriko lukeelako. Beraz, aukera bakarria indigenak eskubide politikoa barik uztea izango litzateke. Behin aldaketa demografikoak alde edukita, proiektu kolonizatzaileak pentsa lezake zer egin geratzen diren biztanle indigenekin, zeinak estatu kolonialarentzako arrisku bat ez diren jada, kopuruan oso txikiak baitira. Kasu hori adibidez Australia edota Ameriketako Estatu Batuen kasuak lirateke. Bertako indigenak, ia guztiz desagertuak, ez dira estatu kolonialarentzako benetako arrisku bat. Proiektuak indigenak asimilatuta ez du arriskuan jartzen proiektu kolonialaren etorkizuna.

Gainera, prozesu horretan guztian aurretik azaldutako prozedura betetzen da, indigena desindigenatzen da, kolonoa indigenizatzen den bitartean. Australiaren kasuan aborigenen ikurrak kolonoek erabiltzen dituzte (Jacobs, 2009:7), kirolean adibidez, ez dago erabilpen hori ezbaian jartzeko arriskurik indigenak oso gutxi direlako eta estatu kolonialaren egituretan sartuta daudelako asimilazio prozesu baten bitartez. Proiektu kolonialek legitimazioa lortzeko indigenen ikurren, izenen, janarien apropiazio kulturala burutu izan dute, kolonoak indigenizatzeko asmoz.

Settler colonialism egitura teorikoa oso baliogarria suertatu da artikulu honen kasua tratatzeko orduan. Palestinako kolonizazio sionistak aurretik azaldutako ereduen ezaugarri batzuk betetzen ditu eta beste batzuk sionismoak berak erabiltzen dituen berezitasunetan oinarrituta daude. Hurrengo atalean ikuspegi historikotik abiatuta Palestinaren kolonizazioaren prozesua aztertuko da.

3. Euskarri historikoa

Palestinaren kasuan erabiltzen den aldarrikapena, hasiera batean, proiektu sionistaren lotura erlijiosoan datza. Proiektu sionistak denboran jarraikortasun bat sortzen du Biblian jazotako gertakarietatik gaur egungo aldarrikapen nazionalistetara arte (Conforti, 2012:157). Sionismoaren jaiotza europar nazionalismo modernoekin batera gertatzen da, sionismoaren sortzaileek europar nazionalismoaren iturritik edan egiten dute mendeetan pairatutako jazarpenei irteera bat topatu nahian.

Sionismo politikoaren jaiotzan, XIX. mendearen bukaeran, bi gertakari azpimarratzekoak izan ziren Europan bizi ziren judutar asimilatuei estatu baten sorrerara bultzatuko dituztenak. Europar estatu moderno burgesen jaiotzarekin bat hiritarrentzako eskubide onarpenak zabaldu ziren, judutar asimilatuentzako mendeetako jazarpenaren bukaeraren hasieran izan zitekeena, estatu berri horien modu parekoan parte hartzeko aukera. Lehenik Alexander Tsarraren erailketa 1881ean eta horren ondorengo progromek argi utzi zuten egoera asko ez zela aldatu (Klier eta Lambroza, 2004:39). Hurrengo hamarkadan Deyfrus-en kasua izenez ezaguna izan zen gertakariak beste behin agerian utzi zuen judutarren egoera ez zela bat ere ez egonkorra (Pappe, 2006:36). Azken gertakari horren jarraipena Theodor Herzl izena zuen kazetari austrungariar bat egiten egon zen, hain zuzen ere, bi urte geroago Basilean sortuko zen Lehen Kongresu Sionistaren buruetako bat (2010:400).

Sionismo politikoak eta aitzindari eduki zuen proto-sionismoari lotutako idazleek agerian utzi zuten Europatik kanpo bilatu behar zela judutarren arazoak konpontzeko irtenbidea (Hess, 1943)(Pinsker, 1906). Garaian garaiko pentsamenduari jarraituz, sionismoak bai

nazionalismotik zein kolonialismotik ideiak bereganatu zituen beraien proiektu politikoa garatzeko orduan. Nahiz eta, hasiera batean, argi ez eduki zein lurralde izango zen proiektu hori garatzeko egokiena, nahiko azkar Palestinako lurraldean jarri zuten jopuntua (Tucker eta Roberts, 2008:1123).

Arestian azaldu bezala, Palestinako lurraldean zeuden Jerusalem, Safed eta bestelako leku biblikoekin lotura zuzena egin eta aldarrikapen erlijiosoa erabiliz lurraldea kolonizatzeko bide morala ireki zuten. Azpimarratzekoa da, sionismoa, bere hastapenetan mugimendu ez erlijiosoa izanik aldarrikapen erlijiosoa erabili izana judutarrentzako garrantzi gutxiagoko liburu erlijiosoen oinarrituta (Bolaffi, 2003:335).

Lurraren inguruan behin aldarrikapena luzatuta errealitate demografikoari aurre egin beharko zioten. Palestinako lurraldea ez zen aurretik azaldutako *terra nullius* kasu bat, nahiz eta Theodor Herzl bere Auterland liburuan hori azaleratzen saiatu (Herzl, 2015:44). Palestinan judutar kopuru txiki bat bizi zen, gehiengoa arabiar jatorriko kristau, musulmandar, druso eta beste gutxiengo erlijiosoak izanik. Beraz, proiektu sionistaren hastapenak zailtasunez betetako bidea erakusten zuten.

Alexander Tsarraren erailketaren ostean Europatik judutar ez politizatutako migrazio olatu bat, *aliyah*, eman zen, lehen asentamenduak garai modernoan 1870. hamarkada bukaeran datatzen direlarik. Ordutik aurrera beste *aliyah* batzuk gertatu dira, judutar populazio kopurua Palestina historikoan nabarmen igoz. Proiektu sionistaren aukera bakarrak behin lurren aldarrikapena lortuta, hein txiki batean bederen, aldaketa demografikoak burutzeko lurren erosketak burutzea zen. Lehen Mundu Gerrara arte, Palestinako agintea Otomandar inperioan esku egon zen eta azken honek ez zuen erraztu sionistentzako lurren erosketen prozedura (Shilony, 1998:16). Behin Lehen Mundu Gerra bukatuta, Mandatuen garaia hasita 1948ra arte Britaniar Handia egon zen Palestinako agintean. Balfourren Aldarrikapenak, 1917an, non britaniar kanpo ministroak gutun baten bitartez Palestinan judutarrentzako etxe nazional bat sortzeko aldarrikapena publikatu zuen, bidea ireki zion sionismoari (Balfour, 1917). Nahiz eta denbora tarte horretan egoera apur bat hobetu emaitzak ez ziren izan oso adierazgarriak demografikoki eta lurren erosketei dagokienez.

Artikuluaren atal teorikoan azaldu den bezala, *settler colonial* kasuetan berebiziko garrantzia du indigena eta kolonoen arteko oreka demografikoak. Proiektu sionistak eraldaketa nabarmenak egiteko aukera urriak eduki zituen Palestinaren kolonizazioa hasi zuenetik, bai gobernu otomandarrak bai britaniarrak aldaketa demografiko handiak egiteko eskaerei uko egin zitelako (Masalha, 1992:36). Indar balantzea aldatu artean proiektu sionistaren aukerarik onena lurren erosketak burutu eta behin lurren jabegoa edukita bertako nekazariak lekuz aldatzea zen judutar etorkinak ezarriz. *Conquest of labour*, lanaren gaineko politikak ezarriz, non judutar langileak bakarrik kontratatzearen politikak aurrera jarraitu zituzten elkarte sionistek (Shafir, 1989:59-61). Beraz, kasu horretan, *settler colonial* adibide batzuetan gertatzen ez den bezala, proiektu kolonial sionistak bertako biztanleriaren laneskua errefusatu egiten du interes demografiko/politikoak ekonomikoen gainetik jarritz. Arabiarren laneskua, oro har, judutarrena baino merkeagoa zen nekazal munduan. Horren adibide, Baron Rothschild-en eskutik sortu ziren asentamenduetan lanesku arabiarra erabiltzearen zergatia (1989:52).

Britaniarrak ezegonkortasun politikoari irtenbide bat topatu nahian, Nazio Batuen Erakundeari, Palestinaren auzian gaineko irtenbide bat bilatzeko eskatu zioten. Nazio Batuen Erakundeak batzorde bat sortu zuen egoeraren gainean irtenbide bat proposatzeko (UNSCOP, 1947). Palestinarren lankidetzaz handirik ez zuen eduki, ez baitzuten onartzen lurraldearen zatiketarik. 1947ko Palestinako Banaketa Planak, lurren %55,5 egokitzen zion etorkizuneko estatu judutarrari (Khalidi, 1997:11). Sami Hadawi eta beste ikertzaile batzuen datuak baliatuz, Britaniar Mandatuaren bukaera eta ia mende erdiko prozedura jarraituz lortzen diren datuak ez ziren bat ere itxaropentsuak izan (Hadawi, 1957:15). Proiektu sionistak Palestinako lurren jabetzaren %6an inguruan zuen eta biztanleriaren herena zen (Idem)(Pappe, 2011:16), horietako gehiengoa hirietan kokatzen zelarik. 1948an piztu zen gerrak aukera paregabea utzi zion proiektu sionistari beharrezkoak zituen aldaketa demografikoak burutzeko. Ilan Pappé, Walid Khalidi edo Benny Morris bezalako ikertzaileek agerian utzi dituzte 1947-49 urte arteko gertakarien ondorioak, non 700.000 biztanle arabiar inguruk lekualdatzeak jaso zituzten (2006: 6)(Morris, 2004:344)(Khalidi, 1988:4-33).

Gertakari horiek *settler colonial* teoriaran azaldu diren behar demografikoetan ezartzen dira. Proiektu sionistak Palestinako kolonizazio demografikoa burutzeko fase ezberdinak eduki izan ditu, horiei momentuan momentuko politika zehatz batzuk ezartzen dizkio, garaiko aukera politiko eta ekonomikoak baliatuz. Artikulu honek aztertzen duen historiaren pasarteetan, Britaniar Agintaldian, proiektu sionistaren etorkizuna kolokan zegoen eta garaian eduki zuten aukera bakarra proiektua bertan behera ez geratzeko lurren erosketen bitartez inmigrante judutarrak ezartzea izan zen.

Prozedura horrek guztiak bertako biztanleriari kalte egin zion, edo ez, historiografia sionistak eta palestinarrak bi ikuspegi ezberdin erakusten dituzte. Lehenak, sionistak, lurren erosketek eta inmigrazioak kalte askorik ez zutela egin azpimarratzen du (Porath, 1976:18-27). Horretaz gain, inmigrazio sionistak Palestinara onurak ekarri zituela azpimarratzen du baita ere, azpiegituran, ekonomian eta alor ezberdinetan (Idem). Historiografia palestinarrak, aldiz, prozedura horrek guztiak palestinarrak nekazalgoan eta gizartearen kalte handiak sortu zituela azpimarratzen du, non proiektu sionistak behartutako aldaketa demografikoak kolonizazio prozesu zabal baten parte direla argudiatzen du (Rodriguez, 2019: 487-489).

Artikulu honek *settler colonial* teoriak erabiliz, Britaniar Agintaldian lurren erosketen eragina aztertuko du Palestinako lau herrialde ezberdin alderatuz. Analisi demografikoaren bitartez aztertu nahi da lurren erosketak eta politika sionistek biztanleria arabiarri kalte egin zion, edo ez, etorkizunerako proiektu sionistak beharrezkoa zuen espazio eta balantza demografiko minimoa ahalbidetuz.

4. Iturriak eta metodologia

Azterketa hori burutzeko, lehenik eta behin, Britaniar Agintaldian dauden datu demografikoak aztertu beharko lirateke eta horiek erabiltzeko gaitasuna. Britaniar Agintaldian, Palestina Historikorako lau iturri demografiko aurkitu ditzakegu: 1922 (Barron, 1922), 1931 (Mills, 1933), 1938 (Government of Palestine, 1938), eta

1945ean(Hadawi, 1970). Datu demografikoekin lan egiteko hainbat oztopo agertu dira bidean, beste artikuluko batean landutakoak, baina gaur egun 1945eko muga administratiboetan oinarritutako lau eskualdetarako (Haifa, Nazareth, Jenin eta Nablus) errolda bateratuak daude herri kopuru eta muga berdinetan oinarrituta (Rodriguez, 2018). Prozedura horren bitartez herriz herri biztanleria talde erlijioso edo etnikoaren aldaketa demografikoak kalkulatu daitezke. Hori eginda, biztanleria judutarra ezartzen denbherrietan beste taldeen bilakaera aztertu daiteke, batzuen agerpenak beste taldearen desagerpenarekin lotura zuzena edukitzen duen ala ez ikusteko.

Britaniar Agintaldian garaian, Palestina Historikoan bizi zen biztanleriak gorakada demografiko bat edukitzea espero zitekeen. Trantsizio demografikoaren teoriak erabiliz, garaian garaiko aurrerapenei esker, elikadura hobetu, medikuntza eraginkortu eta zabaldu... hilkortasun tasa gutxitzea espero zitekeen bizi esperantza handitzen zihoalarik (Rodriguez, 2019:493). Teoria horiekin guztiarekin, bertan bizi zen biztanleriak hazkuntza demografiko bat erakustea izango zen bilakaera normalena. Berezitasunak egon daitezke beti ere, herriz herriko azterketak burutzeko orduan eta hazkuntza demografiko hori ez betetzeko zergatiak agertu daitezke gerora azalduko den moduan.

Bilakaera horiek aztertutako herrialdeetan agertzea espero da, non herrietako biztanleak gorakada demografiko bat erakutsi behar duten. Baina zer gertatzen da, arestian azaldu bezala, proiektu sionistaren lurren erosketak eta migrazioak herrien bilakaera horietan sartzen baditugu? Hurrengo taulan Haifa, Nazareth, Jenin eta Nablus eskualdetako datuak jasotzen dira 1922-1945 urteen artean. Haifa eta Nazareth-eko eskualdeetan judutar migrazio eta lurren erosketak edukiko genituzke, beste aldean berriz, Jenin eta Nabluseko eskualdeetan migrazio eta lur erosketak esanguratsurik ez zen gertatu aztergai dugun garaian (2018).

Taula 1: Haifa-Nazareth-Jenin-Nablus herrialdeak 1922-1945 urteak

| Haifa- Nazareth-Jenin- Nablus | 1922-1945 urteak | | | | |
|-------------------------------------|------------------|------------|---------|---------------------------------|------------------------|
| | Arabiarrak | Judutarrak | Guztira | Arabiarrak eta Judutarrak | Arabiarrak Bakarrik |
| Beherapena | 18 | 1 | 3 | 15 | 3 |
| Guztia | 208 | 33 | 211 | 30 | 178 |
| Portzentajea | 8.65% | 3.03% | 1.42% | 50% | 1.68% |

- Arabiarrak: Arabiarrak aurkitzen diren herri guztien batura
- Judutarrak: Judutarrak aurkitzen diren herri guztien batura
- Guztira: Herrian bizi den populazio guztian batura

- Arabiarrak eta Judutarrak: Arabiarrak aurkitzen diren herriak, non denbora tarte batean behintzat judutar biztanleria bizitzen egon den herrian.
- Arabiarrak Bakarrik: Arabiarrak aurkitzen diren herriak, non denbora tartean judutar biztanleriarik bizitzen egon ez den herria.
- Beherapena: Zenbat herrialdeetan populazioak hazkuntza demografiko negatiboa eduki du.

Taularen analisisira pasa baino lehenago deskribapen orokor bat egitea komeni da taulako datu ezberdinak ondo ulertzeko. Lehen zutabea, arabiar biztanleria bizi diren herriak ageri dira, 1922. eta 1945. urteen artean arabiar biztanleak eduki dituztenak momentu batean behintzat. Beherapena zutabea agertzen diren datuak, urte horien artean herrialde horietan guztietan zenbatetan arabiar populazioak beherakada demografikoa eduki duen azaltzen da. Jarraian datu guztien artean zenbat den portzentajea herri guztiak alderatuta. Kasu honetan 208 herritik 18 herrietan arabiar biztanleriaren beherakada dago.

Bigarren zutabea, aldiz, judutar biztanleak eduki dituzten herriak ageri dira, prozedura berdina jarraitzen duelarik. Guztira 33 herri izan dituzte biztanle judutarrak eta horietatik bakar batean judutar biztanleriak beherakada pairatzen du. Hurrengo taula, hirugarrena, guztizko populazioak aztertzen dituen taula da. Guztira 211 herri daude eta horietako hiru herritan biztanleria totalak beherakada bat jasaten du.

Azken bi taulak, agian artikuluko interesgarrienak izan daitezkeenak, judutar eta arabiar herrialdeak alde batetik eta arabiar herrialdeak bestetik aztertzen ditu. Lehen kasuan guztira 30 herrialde daude, non judutar eta arabiar biztanleak bizi diren, horietako 15etan arabiar populazioak beherakada demografikoa erakusten du. Bigarren kasuan, arabiarrek bakarrik bizi diren herriak aztertzen ditu, 178 herrietatik hiru herritan arabiar biztanleriak beherakada demografikoa erakusten du. Horiek dira aztergai ditugun emaitzak, hurrengo atalean hauen analisia burutuko delarik.

5. Analisia

Lehendik azaldu den moduan *settler colonial* kasu ezberdinetan momentuan momentuko gertakari politikoek, zein ekonomikoek, proiektuen demografiarekiko jarrera ezberdinak azaltzen dituzte. Gure kasuan, Palestinako kolonizazio prozesuaren hastapenetan, proiektu sionistak hainbat erabaki eta jarrera hartu zituen etorkizunera begira berebizikoa garrantzia eduki zutenak.

Garai modernoan lehen asentamenduak hasi zirenetik, Israeleko estatua aldarrikatu zen arte, proiektu sionista ez zen aldarrikatzen zuen lurraldean inoiz agintean egon, beti beste potentzia kolonialen menpean egon zen. Proiektuaren etorkizuna bermatzeko aldaketa demografikoak burutzeko prozedura, aldaketa sakonak egiteko aukerak alde batera utzita, herriz herriko aldaketa demografikoak burutzen aritu ziren. Aldaketa demografiko horiek, gerrako emaitzak ikusita, nahiko izan ziren gerora garaile izateko, aldarrikapen pean zegoen lur zati handi bat defenditzeko alegia. Lurren jabetzen %6 inguru edukita, lur emankorren %25en jabetza zen eta sortutako asentamenduak defentsa lerro ezin hobe bilakatu ziren gerra garairako (Hadawi, 1957:15-16)(Rabinovich eta Reinharz, 2008:41).

Historigrafia sionistak azpimarratu izan zuen palestinarrak kaleratzeko plan zehatzik ez zela egon, eta dena gerraren ondorioak izan zirela azaltzen duen ildoak kontuan harturik (Nassar, 2011:52), ikerketa honek gertakari horiek gertatu baino lehenago prozedura hori martxan zegoela azaldu nahi du. Horretarako, aurreko atalean azaldutako datu demografikoak aztertuko dira, non judutarren lurren erosketa zein inmigrazioaren eragina palestinarrak populazioarengan agerian utziko den. Britaniar Agintaldian aldaketa sakonak egiteko aukera urriak edukita, aldaketa xumeago batzuk egitera behartuak ikusi zuten beraien burua sionistek. Xumeak izateak ez du esan nahi garrantzizkoak izan ez zirenik, etorkizuneko estatua sortzeko beharrezkoak izan ziren aldaketak izan baitziren.

Aztergai ditugun herrialdeetan, Haifa, Nazareth, Nablus eta Jeninen lurren erosketa eta inmigrazio prozesu ezberdinak azaltzen dira. Lehen bi kasuetan, Haifa eta Nazareth, inmigrazio sionistan kopuru handia ageri da (Rodriguez, 2018), lur erosketa nabarmenekin (Hadawi, 1970:47-50,62-64). Bigarren kasuan aldiz, Jenin eta Nablusen adibideetan, ez dago ia inmigrazio judutarrik eta lurren erosketak herrialde horietan, Britaniar Agintaldian zehar, ia ez ziren burutu (Rodriguez, 2018)(Hadawi, 1970:54-55,59-62). Beraz, bi kasu guztiz ezberdin azaltzen dira gure analisisian. Lehen kasua, non arabiarren bilakaera demografikoari proiektu sionistaren eragina gehitzen zaion eta bigarren kasu bat, non arabiar biztanleriaren bilakaera demografikoan proiektu sionistaren eragina agertzen ez den.

Modu orokor batean azaldu da garaian zer nolako bilakaera demografikoa espero zitekeen bertako biztanleriarengan, hazkuntza demografiko orokor bat espero zitekeen, kasuan kasuko berezitasun batzuk kontutan hartu gabe, trantsizio demografikoen teoriak erabiliz (Rodriguez, 2019:493). Orokorrean, izurrite, taldeen arteko guda edota zonalde industrialek migrazio egon ezean besteak beste, arabiar populazioak hamarkada hauetan hazkuntza demografiko bat erakutsi behar zuen (Idem). Hori da teorikoki espero behar zen joera.

Tauletan ageri diren datuak aztertuta, azaldutako bilakaera ez da guztiz betetzen. Lehenik eta behin ikusten da arabiarrek bizi diren herrietan, guztira 208 izanik, horietako 18 herritan arabiarrek hazkuntza negatiboa erakusten dutela. Datu hori aurretik azaldutako arrazoiek argitu ahalko lukete modu sinple batean inolako eztabaida gabe, baina artikulu honen zeregina ez da arrazoi inguruan sakontzea beste metodologia bat behar baitzuen. Bigarren datuetan, non 33 herrietatik batean bakarrik judutar populazioak hazkuntza beharrezko erakusten duen, modu orokor batean, erraz azaldu ahal den dinamika baten aurrean aurkitzen gara. Judutar inmigrazioak, legalak zein ilegalak, judutar biztanleriaren hazkuntza naturalean duen eragin handia erakusten dute datuek. Oro har, judutar hazkuntza demografiko errealearen bultzada kanpo inmigrazioan oinarritzen da.

Hirugarren datuetan, non herri kopuru totala ageri den, lehenbizi ikusten den datua herri kopurua eta arabiar herri kopurua ez dela berdina da, hots, azterketa burutu den datarako hiru herrietan bizi zen populazio guztia judutarra zela. Beste datu adierazgarri bat ikusten da, arabiar populazioaren beharrezko demografikoa eta herrietako populazio guztiaren beharrezko demografikoak ez datozela bat. Horrek esan nahi du, arabiar populazioaren beharrezko hori gertatzen den herrietan, desagertutako arabiar biztanleria bere lekua beste batek okupatzen duela. Kasu horretan, arabiar populazioa judutar populazioaz

ordezkatzen da. Hurrengo bi kasuetan, non arabiarren bilakaera demografikoa alde batetik, eta herri mixtoak, arabiar eta judutar biztanleriarekin bestetik, aztertuko diren, agerian utziko ditu orain arte azaldutako patroik demografikoak.

Judutarrak eta arabiarrek batera bizi diren herriak aztertuta, 30 herri dira baldintza horiek betetzen dituzten herriak. Horietako 15etan, erdian, arabiar populazioak beherakada demografikoa erakusten du. Datu hori deigarria da oso arabiarrek bakarrik bizi diren herriekin alderatuz gero. Guztira 178 herrietatik hiru herritan (%1,68) arabiar biztanleriak beherakada demografikoa erakusten du. Konparaketa horrek agerian uzten du arabiar populazioaren beherakadak judutar inmigrazioarekin zerikusia duela.

Settler colonial teorian azaltzen den moduan, kolonizazio prozesuan murgiltzen diren inmigranteek aldarrikapeneko lurraldeko biztanleak eliminatzea dutela helburu (Wolfe, 2006, 388). Eliminazioa esan bezala, ez du zertan fisikoa izan, aldarrikapenean dagoen lurretatik kaleratzearekin nahiko izan daiteke kasu batzuetan. Beste batzuetan, balantza demografikoa dela medio, kolonoentzako lan esku merke moduan erabilia izan da biztanleria indigena (Veracini, 2011:2). Aztergai dugun adibidean, proiektu sionistak hasiera batetik palestinar lan eskua baztertu zuen, *conquest of labour* estrategia politiko-ekonomikoa erabiliz biztanleria palestinarra zirkuitu ekonomikoetatik kanpo uzten saiatu egin ziren (Shafir, 1989:81). Horren adibide, nekazal munduan lan egiteko lan esku judutarra erabiltzeko hautua. Prozesu horren eragina arestian aztertutako aldaketa demografikoetan ikus daiteke.

Behin lur baten jabea aldatuta, judutar kolonizazio elkarten esku izanik, bertan zeuden maizterrak kaleratzeko prozedura martxan jartzen zen lan esku judutarrarengatik ordezkatuak izateko. Prozedura horren ezarpenak aldaketa demografikoak burutu izan behar zituen lurralde ezberdinetan, goiko taulan agertzen den moduan, arabiar populazioaren beherakadak ez dira nabarmentzen herrian biztanleria totalen. Horrek argi uzten du arabiar populazioak uzten duen espazioa judutar inmigrante berriek ordezkatzeko dutela. Elkarte sionisten lurren erosketak eta palestinar biztanleen beherakada demografikoak lotura estua erakusten dute, palestinar biztanlearen aurreikuspen demografiko hazkundeak bertan behera geratuz.

Badira kasu batzuk, non elkarte judutarrek palestinar lan eskua erabili izan zuten, horren adibide Baron Rothschild-en eskutik sortutakoak (Shafir, 1989:54). Nekazaritza produktiorako lan esku palestinarra erabili ohi zen luraren ezagupenarengatik, bertan landatzen ziren produktuen gaineko ezagupenarengatik, lan esku merkeagoa zelako eta horrez gain, zonaldeko klima gogorra jasateko kapazitatea altuagoa erakusten zutelako Erdialdeko Europatik etortzen ziren inmigrante judutarrak baino (Pappé, 2004:39).

Palestinar biztanleriaren eliminazioa, elkarte sionistek erositako lurretan, aurretik azaldutako behar demografikoen baitan egokitzen da. Proiektu sionistaren nahia palestinar lurraldean estatu bat sortzea zen, Balfourren aldarrikapenean garbi utzi zen moduan, baina esan bezala lur horretan biztantaleria palestinarra bizi zen eta aldaketa demografikoak egin ezean proiektuaren iraunkortasuna ezbaian egongo zen. Aldaketa demografikoak burutzeko aukera bakarra izanda proiektuaren iraunkortasuna bermatzeko orduan, beste *settler colonial* kasu batzuetan ez bezala, proiektu sionistaren arrazalizioa, judutarrak ez ziren beste biztanleak proiektutik baztertuz, gehiago

demografikoa izatera behartzen zuen, eta gaur egun horrela jarraitzen du, proiektuaren iraupena bermatzeko.

Prozesu horren baitan ezartzen da Britaniar Agintaldia, proiektu sionistaren nahia eta beharra demografia sakonki aldatzen baina tokian-tokiko eta garaian-garaiko gertakariak zaildu egin zituzten aldaketa demografiko sakonak burutzeko aukerak. Adierazi bezala proiektuaren epe luzerako behar demografiak kontutan harturik momentuan lortu zitezkeen emaitzarik onenak lur erosketen bitartez sortzen ziren aldaketa demografikoak burutzea izan zen. Horrek ez du esan nahi lur erosketa eta kaleratze horiek nahiz eta xumeak izan, populazio totalarekin alderatuz, garrantzitsuak izango ez zirenik. Proiektu sionistaren iraunkortasuna bermatzeko balio izan zuen, momentu kritikoa gaindituz.

6. Ondorioak

Artikuluaren zehar azaltzen saiatu den moduan, Palestinaren kolonizazioaren prozesuaren epe historiko baten analisia datu demografikoak aztertuz egin da. Palestinako kolonizazioaren momenturik garrantzitsuenetarikoan aurrean aurkitzen gara, non proiektu sionistaren etorkizuna ez zegoen bermatua. Proiektu sionistak eragindako aldaketa demografikoak biztanleria palestinarrarengan proiektuaren iraunkortasuna bermatzeko kontestuan kokatzen dira.

Aurretik azaldutako *settler colonial* teoriak azpimarratzen duen moduan, eliminazioa burutzeko lehen arrazoia lurraren sarreraren bermea lortzea da. Proiektu sionistak aurretiaz aldarrikapen erlijiosoak erabili zuen Palestinako luraren sarbide morala eskuratzeko. Iraganeko eta etorkizuneko judutarren lotura egiten du sionismoak, XIX-XX. mendeko aldarrikapen nazionalista eta kolonialistak baliatuz lurraren gaineko jabego morala eskuratzeko, bertan bizi zen biztanleriaren eskubideak desagertaraziz.

Horretan oinarrituta, proiektu sionistaren lurren erosketen, eta horiek sortu zituzten asentamenduek espazio fisikoaren beharra erakusten dute. Espazio fisiko horiek, hein handi batean, arabiar biztanleriak okupatzen zituen. Taulan azaldu den bezala, Britaniar Agintaldian, biztanleria baten agerpena beste biztanleriaren desagertarekin erlazionatzen da, kausalidade bat sortuz. Beste modu batez esanda, arabiar biztanleria judutar jabegoa bilakatzen den lurretan ordezkaturia izaten da.

Honen zergatia, aurretiaz azaldu den behar demografikoetan aurkitzen dugu, gainera azpimarratu den bezala proiektu sionistak *conquest of labour* politikak erabiliz argi erakusten du nazio eraikuntza kolonialean ez dagoela arabiarrentzako tokirik. *Settler Colonial* teoriaren barruan adibide ezberdinak aurkitzen dira, non indigenen laneskua proiektu kolonialaren mesede ekonomikoentzat erabiltzen den baina aztergai dugun kasuan ez da horrelakorik egiten eta biztanleria arabiarra sionisten jardueraren ekonomikoetatik baztertuta ikusten du bere burua.

Aldaketa demografiko sakonak egiteko gaitasun urria edukita, proiektu sionistaren aukera bakarra zen lurren erosketen bitartez egindako lekuan lekuko aldaketa demografikoak burutzea. Analisisian aztertu bezala, 1945. urtean prozedura horien bitartez egindako aldaketa demografikoak ez ziren behar beste sakontasunera iritsi, lurren jabegoaren %6

inguru eskuratu zutelako (Hadawi, 1957:15). Datu horiek, non biztanleria osoaren herena inguru judutarra izango zen eta 1947ko Palestinaren Banaketa Plana jasotako proposamenean lurren banaketan judutarrei esleitutako lur kopuruan gutxiengo demografiko bat izango zirela jakinda (Pappe, 2011:16), proiektu sionistan etorkizuna ez zegoen bermatuta. Ez zen jasagarria izango estatu sionista bat non judutarrak gutxiengo demografiko bat izango ziren.

Horregatik Britaniar Agintaldiaren garrantzia proiektu sionistaren etorkizunean, datuekin ikusi dugunez, proiektu sionistak behar izan zuen espazioa garai horretan eskuratu zuen, etorkizunean aldaketa sakonago batzuk burutzeko aukerak eman zizkionak. Lurren erosketen bitartez egindako mugimendu demografikoak ezinbesteko prozedura bilakatu ziren proiektuaren etorkizuna bermatzeko orduan. Lur erosketak horiek gabe ezin izango zen Israeleko estatua aldarrikatu 1948. urtean.

Proiektu sionistaren garairik garrantzitsuenean aurkitzen gara, non lurren erosketen eragin horiek datu demografikoen bitartez azaltzen saiatu ziren. Errolda eta prozesu demografikoen erabilerak historiografia palestinarrek agerian utzi zituen eliminazio prozedurak egiaztatzen ditu kuantitatiboki.

Palestina eta Israeleko gatazkaren irakurketa akademikoa egiterakoan, gatazkaren kronologiaren hasiera noiz kokatzen den eztabaida puntua izan ohi da. Hurbilketa honen bitartez agerian utzi nahi izan da gatazkaren oinarriak proiektu sionistaren lurren erosketen hastapenekin hasten direla, eskualdeko errealitate demografikoa aldatzeko lehen saiakerak hasten diren lehen momentutik hain zuzen.

Bibliografia

- Balfour, A. J. (2017) The Balfour Declaration. Israel Ministry of Foreign Affairs.
<https://www.gov.il/en/Departments/General/the-balfour-declaration-29-Oct-2017>
- Barron, J.B. (1923). *Report and General Abstracts of the Census of 1922*. Greek Convent Press, Jerusalem, October.
- BOLAFFI, G. (2003). *Dictionary of Race, Ethnicity and Culture*. SAGE, London.
- Conforti, Y. (2012). Zionist awareness of the Jewish past: inventing tradition or renewing the ethnic past?. *Studies in ethnicity and nationalism*, 12(1), 155-171.
- Government of Palestine. (1938). *1938 Village Statistics*. Statistics Office, Jerusalem, February.
- Hadawi, S. (1957). *Land ownership in Palestine*. New York: Palestine Arab Refugee Office.
- (1970). *Village Statistics 1945: A Classification of Land and Area Ownership in Palestine*. Palestine Liberation Organization Research Center, Beirut.
- Herzl, T. (2015) *Old New Land*. BoD – Books on Demand, Norderstedt.

- Hess, M. (1943). *The Revival of Israel: Rome and Jerusalem, the Last Nationalist Question*. University of Nebraska Press, Lincoln.
- Jacobs, M. D. (2009) *White Mother to a Dark Race: Settler Colonialism, Maternalism, and the Removal of Indigenous Children in the American West and Australia, 1880-1940*. University of Nebraska Press, Lincoln.
- Khalidi, W. (1997). Revisiting the UNGA partition resolution. *Journal of Palestine Studies*, 27(1), 5-21.
- (1988) "Plan Dalet: Master Plan for the Conquest of Palestine." *Journal of Palestine Studies*, Vol. 18, No. 1, Special Issue: Palestine 1948, pp. 4-33.
- Klier, J. D. eta Lambroza, S. (2004). *Pogroms: Anti-Jewish Violence in Modern Russian History*. Cambridge University Press, Cambridge.
- Livi-Bacci, M. (2006). The depopulation of Hispanic America after the conquest. *Population and Development Review*, 32(2), 199-232.
- Mills, E. (1932). *Census of Palestine 1931. Population of Villages, Towns and Administrative Areas*. Greek Convert Press, Jerusalem.
- (1933). *Census of Palestine 1931, Volume I. Palestine Part I, Report*. Alexandria.
- (1933). *Census of Palestine 1931, Volume II. Palestine, Part II, Tables*. Alexandria
- Masalha, N. (1992). *Expulsion of the Palestinians: the concept of "transfer" in Zionist political thought*. Institute for Palestine Studies.
- Morris, B. (2004). *The Birth of the Palestinian Refugee Problem Revisited*. Cambridge University Press, Cambridge.
- Nassar, M. (2011). Palestinian Citizens of Israel and the Discourse on the Right of Return, 1948–59. *Journal of Palestine Studies*, 40(4), 45-60.
- Pappé, I. (2011). *The forgotten Palestinians: A history of the Palestinians in Israel*. Yale University Press.
- (2010). *Across the Wall: Narratives of Israeli-Palestinian History*. I.B.Tauris, London, 2010.
- (2006). The 1948 ethnic cleansing of Palestine. *Journal of Palestine Studies*, 36(1), 6-20.
- (2004). *A History of Modern Palestine: One Land, Two Peoples*. Cambridge University Press, Cambridge.
- Pinsker, L. (1906). *Auto-emancipation*. Maccabean, New York.
- Porath, Y. (1976). "The Land Problem in Mandatory Palestine", *Jerusalem Quarterly*, No. 1 pp. 18-27.

- Rabinovich, I. & Reinharz, J. (2008). *Israel in the Middle East: Documents and Readings on Society, Politics, and Foreign Relations, Pre-1948 to the Present*. University Press of New England, Hanover & London.
- Rodriguez, E. (2018). "Palestine Population Sources". Center of Arts and Humanities, American University of Beirut.
<https://www.aub.edu.lb/cah/Pages/DIGITALHUMANITIES.aspx>
- (2019). Settler Colonial Demographics: Zionist Land Purchases and Immigration During the British Mandate in Palestine. *Interventions*, 21(4), 486-509.
- Sen, U. (2017). Developing terra nullius: Colonialism, nationalism, and indigeneity in the Andaman Islands. *Comparative Studies in Society and History*, 59(4), 944-973.
- Shafir, G. *Land*, (1989) *Labor and the Origins of the Israeli-Palestinian Conflict 1882-1914*. Cambridge University Press, Cambridge,
- Shilony, Z. (1998). *Ideology and Settlement: The Jewish National Fund, 1897-1914*. Magnes Press, Hebrew University, Jerusalem.
- The United Nations Special Committee on Palestine. (1947). Report.
<https://www.un.org/unispal/document/auto-insert-179435/>
- Tucker, S.C. & Roberts, P. (2008). *Encyclopedia of the Arab-Israeli Conflict: A Political, Social, and Military History*. ABC-CLIO, California.
- United Nations. (1947). Palestine plan of partition with economic union – General Assembly resolution 181. <https://www.un.org/unispal/document/auto-insert-185393/>
- Veracini, L. (2011). Introducing: Settler colonial studies. *Settler colonial studies*, 1(1), 1-12.
- (2010) *Settler Colonialism: A Theoretical Overview*. Palgrave Macmillan, London.
- Wolfe, P. (2012). Purchase by other means: The Palestine Nakba and Zionism's conquest of economics. *Settler Colonial Studies*, 2(1), 133-171.
- (2006). Settler Colonialism and the Elimination of the Native. *Journal of genocide research*, 8(4), 387-409.